

INTSUMISIOAREN ZERGATIA

Jose Antonio Saceda gazte ermua-rra epaituko dute abenduaren 1ean, Bilbon, derrigorrezko zerbitzu militarri uko egiteagatik. Ermuan 30 inguru dira egoera berean, epaiketaren zain dauden intsumisoak, eta lehen epaituarekiko ermuarren milaka elkartasunezko sinadura batu dira azken hilabeteotan. Gazte honek fiskalaren 18 hilabetezko kartzela zigor eskariari egin beharko dio aurre, bederatzi hilabetez ejertzitoari lagundu nahi ez izateagatik. Ezagut ditzagun bere arrazoiak:

-Noiztik zara intsumiso?

-1991.eko maiatzetik, soldaduzkara joateko deialdiari uko egin nionetik.

-Bapateko erabakia izan zen?

-Ez, bi urteko atzerapena amaitutakoan gutun bat bidali nion Defentsa Ministeritzari, Kontzientzi eragozlea nintzela esanez eta beraz, soldaduzka ez nuela egin behar azalduz.

-Erantzunik jaso al zenuen?


-Bai, militarrek ohar bat bat helarazi zidaten, kontzientziak epaitzeko asmatu duten tribunal horrek ez zituela nire arrazoiak onartzen esanez.

-Eta horren ondoren?

-Horren ondoren 90.eko azaroan zozketatu ninduten eta handik sei hilabetez soldaduzkara joateko paperak heldu zitzaizkidan.

-Nora joan behar zenuen?

-Mungiara.



Jose Antonio Saceda

SANTOS VEGA

-Zer egin zenuen?

-Eurek bidalitako paperak itzuli nizekien militarrei, eta paperekin batera beste eskutitz bat, nire kontzientzia epaitzeko eskubiderik ez niela errekonozitzen esanez, ni desmilitarizazioaren alde eta ejertzitoen kontra nintzela gogoraraziz, eta beraz koartelera joateko asmorik ez nuela argi ta garbi utziz.

-Eta? Orainsu arte?

-Ez, handik gutxira, antimilitarista taldeek, egiten dituzten militarren aurreko aurkezpen kolektibo horietako batean parte hartu nuen, hartan, gehienetan ez bezala, gobernu militarreara sartzen utzi ziguten, bertan inprimaki batzuk bete eta idazki bat eman genien militarrei, ejertzitoari ez laguntzeko gure arrazoiekin.

-Lehen aipatu duzun tribunal horrek, kontzientzi eragozletzat jo izan bazintu, zer?

-Antzerako, tribunal hori, militarrek eta gobernuak ejertzittoa babesteko asmatu-rik fartsa da, kontzientziak epaitzen dituzte, inkisizio berri gisa, eurek erabakitzen dute zein bai eta zein ez, eta "Eragozle Titulazio Ofiziala" lortzen dutenak Ordezko Zerbitzu Soziala (PSS) egitera behartzen dituzte.

-Eta zer deritzozu zuk ordezkoko zerbitzu horri?

-Ejertzittoa bezain txarra dela uste dut, are luzeagoa gainera, guztiz injustua. Hori, jendeak soldaduzka egin dezan txantaia besterik ez da, tira, txantaia eta zigorra, soldaduzka egin nahi ez duena zigortzeko asmatu-rik zerbait. Soldaduzkaren alde txar guztiak ditu, derrigorrezkoa da, bahiketa legala, denbora galtze hutsa. Inork ezin nau behartu nahi ez dudana egitera, ezta euren "elkartasun" faltsuaren izenean ere; solidario izan behar al dut ejertzitoarekin? gerrak prestatzen milioiak gastatzen dituztenekin? ez, ni solidario izan naiteke zerbait onerako behar naue- narekin, nire kontzientziak horrela esaten dit, horregatik hain zuzen, naiz intsumiso.

-Soldaduzkarako deitua izan zinenean, lanean ala langabezian zeunden?

-Erdizka, lan egiten nuen baina mi- xeria baten truke, hiru urtez jardun nuen, Torreta Etxea eraikitzen, Udalarekin kola- boratzen, eta gero gainera ejertzitoari la- guntzera? baita zera ere! hori da PSS de- lakoaren beste puntu beltz bat, eragozleak erabiltzen dituzte hainbat lanpostu bete- tzeko ezer kobratu gabe, langabetu piloa dagoen bitartean.

-Zure erabakia dela eta, zer diote etxekoek?

-Hasieran zaila izan zen, nire jarrera ulertzen zuten, baita arrazoiak konpartitu ere, baina intsumiso izateak ekarriko zida- naren beldur ziren, orain aldiz, izugarri la- guntzen didate, eta ni poztu egiten naiz horrela izateaz, badakidalako gazte askok nirea bezalako pentsakerarekin soldaduz- ka egiten duela etxekoek beharturik, eta horri onartezina deritzot.

-Eta lagunek?

-Ondo, oso ondo, lagunekin "delaos- tia"; nire koadrillan lau edo bost intsumitu gara dagoeneko, eta denok intsumisioaren aldekoak gara, soldaduzka egin behar izan dutenak barne.

-Eta Ermuko antimilitaristekin, zer moduz Kakitzat-ekoekin?

-Oso ondo ere bai, laguntza handia eta informazio piloa eman didate, aboka- tua ipini, "papeleoa" egiten lagundu, nire- kiko elkartasun kanpaina antolatu, asko eskertzen da hori guztia, ez naiz bakarrik sentitzen militarren aurrean, badakit ni bezalako milaka daudela, badakit nire arrazoiak ulertzen eta bere egiten duen jendetzaizugarria dagoela nonnahi, eta horrek indarra ematen dit, hori guztia ga-

be, benetan gogorra izan zitekeen.

-Zure ustez, baliteke hori guztia Er- muko lehen intsumiso epaitua izango za- relako izatea?

-Bai, baliteke, baina espero dut ez izatea, eta ni jasotzen ari naizen babes- a eta jendearengandiko elkartasuna, hurren-



Kakitzat-en ekintza antimilitarista bat.

go hilabetetarako, dagoeneko eguna jarri- ta duten beste epaituen alde ere azalduko dela.

-Aukera izanez gero, zer esango dio- zu epaileari?

-Militarrei esan niena gutxigorabehe- ra, ez diodala nire kontzientzia epaitzeko eskubiderik errekonozitzen, ez dudala inolako deliturik egin, eta beraz, edozein zigor, txikiena ere, kartzela zein inhabili-

tazioa, bidegabekieriatzat joko dudala.

-Kartzela aipatu duzu, zer erizten diezu azken hilabeteotan preso dauden intsumisioek hartutako erabakiei, 3. gra- duari plantoa, gose greba...?

-Nire ustez oso erabaki gogorrak di- ra, eta ziur nago egoera gogor eta jasane- zin baten aurrean izan direla hartuak. 3. graduarena gobernuaren maniobra izan zen, gizartean zegoen eta dagoen haserrea lasaitzeko, errepresioa bigunduz, azken fi- nean errepresioa mantentzeko. Eta gose grebak... imajinatu zein egoeratan egon behar duten horrelako neurriak hartu be- har izateko. Guzti horren zergatia begi bistan dago, dispertsioa, konponbide eza, gobernuaren asmoak, militarismoa bera,...

-Zer esango zenioke soldaduzkara joateko deitua izango den 18 urteko gazte bati?

-Ez dakit, agian ondo pentsatzeko, edozein erabaki hartu aurretik, ahalik eta informazio gehien kontrajartzeko, eta hori egin ondoren, gaur egungo gazte gehie- nok bezala, ez badu, ez soldaduzkarik ez ordezkoko zerbitzurik egin nahi, orduan au- rrera egiteko, ausardiaz jokatzeko, hortxe duela intsumisioaren estrategia, erabiltze- ko.

Manuel Moreno


DROGERIA - OPARIXAK SOLOZABAL

Ixa 50 urte zuekin

Cardenal Orbe plazan 17 00 52 telefonoa ERMUA

ARTARRAI OPARI DENDA

Goienkale, 5 • telf. 17 44 19
ERMUA



ARRAINDEGIA
eta
ITSASKIA
DOMINGUEZ

Eibarko Merkatu Plaza
Tfnoa: 11 80 38
Tlf. partikularra: 11 77 25
Ermuko Merkatu Plaza
Tfnoa: 17 03 38
Tlf. partikularra: 17 02 84

Bitxitegia

IGANE

VI Centenario, 19 Tfnoa. 17 46 34
48260 ERMUA

GADIFOL-en

Aukera guztiak
KODAK garantiaz

Komentukoa, z/g.
Tlf. eta Faxe: 17 06 71



ILUN Pub